

PRENTSA TXOSTENA

DOSSIER DE PRESSE

Literatura solasaldia

Soirée littéraire

Baiona - Bayonne

Euskal Museoa
Musée Basque

apirilak
27

avril

osteguna - jeudi
18:00

Antolatzaileak
Organisateurs



TIR

TERRITOIRES, LANGUES,
LITTÉRATURES & CULTURES :
CONFRONTATIONS, LECTURES,
TRANSLATIONS

Sous la direction de
H. Le Bihan & A. Arcocha

Iker - 44



Hizlariak
Intervenants



Aurelia Arkotxa
Euskaltzaindia
UBM-IKER



Hervé Le Bihan
Rennes 2
Celtic-Blm



Miren Ibarluzea
EHU
MHLI



François Pic
Toulouse 2, Jean Jaures
PLH



Itxaro Borda
Euskaltzaindia
Idazle

Bidaia segituz

Territoires, Langues, Littératures & Cultures : Confrontations, Translations-liburuaren ideia, Euskaltzaindiaren Mendeurrena kari, Bilboko egoitzan 2019ko maiatzean antolatu zen *Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena: eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak* lelopean antolatu zen nazioarteko kongresuaren bigarren egunean sortu zen. Orduan, Herve Le Bihanek eta Aurelia Arkotxak pentsatu zuten komenigarria izango zela bertan entzundakoak iraunaraztea, biltzea eta beste artikulu batzuekin aberastea eta liburu handi bat osatzea, zeren hain *verba volant, scripta manent*. (...)

Lan honetan parte hartu duten 27 idazleei esker, euskara, bretoiera (*brezhoneg*), katalana (*català*), korsikera (*corsu*), kreole guyanesa (*kriyòl gwiyanen*) edo okzitania (*lenga d'òc*), ageri dira orrialde hauetan, ahantzi gabe hemen ez daudenak baina sinbolikoki ordezkatuak direnak, hala nola galiziera (*galego*) edo alsaziera (*elsässisch*) eta beste batzuk.

Hain hedatuak ez diren hizkuntzetan ari diren idazleen lan garaikideak ez ditzagun imaginatu desagertzera behartuak balira bezala. Mugikorak, itzulgarriak, inguruko geografietara migratzen jarraitzen dute, eta are urrunago dauden beste lurralde linguistikoetara bidaiatzen ere. Gero, beste testu batzuk, poesiak, eleberriak, saiakerak, jatorriz "zabalduagoak" diren hizkuntzetan idatziak, edo gugandik ezezagunak diren munduko beste hizkuntza batzuetan, hain txikiak, hain ikusezinak diren gureetara itzuliak dira ere. Azken hauek, orduan, eraldatu, aberastu eta itzuli egiten dira bidaia honetatik, espeziaz kargaturik bezala, eraldaturik. Hala izan zen beti, testuak beti izan ziren nomadak, hibridoak.

XX. eta XXI. mendeetako literatur ekoizpenak aipatzeaz gain, leku bat eman zaie liburutegiei (XVIII. eta XX. mendeak), XIV. mendeko eskuizkribu bati, XVI. mendetik XVIII. mendera doazen inprimatuei. Oso ozen esan behar da gure hizkuntzetan idatzitako testu zaharrak, eskuizkribuak eta inprimatuak, testuaren historia orokorrari, liburu inprimatuaren Europako historiari eta haren espiritu nomadari dagozkiela, nahiz eta historia ofizialetan maizegi ahazten dugun errealitatea izan.

Liburu honetan diren testu polifonikoek aukera ematen diezaiela irakurle eta irakurleei, hizkuntzaz hizkuntza, liburuz liburu, eskuizkribuz eskuizkribu, beste unibertso literario batzuetara, beste oriente batzuetara bidaia jarraitzea, azalean agertzen den Friedrich von Amerling-en irakurle ameslari turbantedunaren gisara.

Poursuivre le voyage

L'ouvrage Territoires, Langues, Littératures & Cultures : Confrontations, Translations prend sa source première lors de la deuxième journée du congrès international Écriture et traduction entre langues : manuscrits, imprimés, archives littéraires organisé par Euskaltzaindia, l'Académie de la langue basque en mai 2019 à Bilbao au siège de l'Académie. C'est alors que Herve Le Bihan et Aurelia Arcocha, les deux chercheurs à l'initiative de l'ouvrage ont pensé qu'il serait utile de pérenniser ces diverses communications, de les rassembler, de les enrichir par d'autres articles et d'en constituer un fort volume, car si *verba volant, scripta manent*. (.....)

Parmi les contributions de 27 auteurs, les langues basque (euskara), bretonne (brezhoneg), catalane (català), corse (corsu), créole guyanais (kriyòl gwiyanen) ou occitane (lenga d'òc) sont convoquées à travers ces pages, sans oublier celles qui n'ont pu être affichées mais qui symboliquement sont bien présentes comme le galicien (galego) ou l'alsacien (Elsässisch) et d'autres encore.

N'imaginons pas les textes des écrivaines et écrivains contemporains évoqués en des langues « moins répandues » voués à la disparition. Mobiles, traductibles, ils continuent de migrer vers des géographies circonvoisines et d'autres terres linguistiques encore plus éloignées. Puis voilà que d'autres textes, poésies, romans, essais, écrits à l'origine en des langues « plus répandues », ou en d'autres langues du bout du monde ignorées de nous, sont traduits dans les nôtres, si petites, si invisibilisées. Ces dernières se transforment alors, s'enrichissent et reviennent de ce voyage comme chargées d'épices, transmutées. Ce fut toujours le cas, les textes furent toujours nomades, hybrides.

Outre des mentions à des productions littéraires des XXe-XXIe siècles, une place a été accordée aux bibliothèques (XVIIIe-XXe), à un ouvrage manuscrit du XIVe siècle, à des imprimés qui vont du XVIe au XVIIIe siècle. Il faut dire bien haut que les textes anciens, manuscrits et imprimés, écrits en nos langues appartiennent à l'histoire générale du texte, à l'histoire européenne du livre imprimé et à son esprit nomade, fait que l'on oublie trop souvent dans les histoires officielles.

Que les textes polyphoniques évoqués dans cet ouvrage permettent aux lectrices et aux lecteurs de poursuivre le voyage, de langue en langue, de livre en livre, de manuscrit en manuscrit vers d'autres univers littéraires, d'autres orientes, à l'image de la lectrice rêveuse au turban de Friedrich von Amerling.

A limine

Euskaltzaindiak azken urteotan egindako lanaren ardatz nagusietako bat bere ekoizpen eta jardueraren nazioartekotzea izan da. Hori lortzeko, beste erakunde batzuekiko elkarlana ezinbestekoa da, kasu honetan egin den gisara, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren (1918-1919/2018-2019) ospakizunen karira, Akademiak euskal literaturarekiko eta bertatik hurbil dauden beste batzuekiko duen inplikazioaren erakusle argia.

Hortaz, Université de Rennes 2-rekin egin den elkarlana inflexio-puntua da Euskaltzaindiaren arlo honetako argitalpenetan. Izan ere, garai desberdinetako euskarazko, bretoierazko, okzitanierazko, korsikerazko, katalaneko eta Guyanako kreolerazko literatura eta itzulpenen gaineko hausnarketa, besteak beste, hizkuntzen eta kulturen arteko batasun-zubi eta lotura ezin hobeak dira. Sarri, merezi duten aitortza, presentzia eta oihartzun soziala izaten ez duten hizkuntzak. Kasu askotan, halaber, hizkuntza horiek bi estatu edo gehiagoren artean zeharkako posizioa hartzen dute, eta horrek are originaltasun handiagoa ematen dio argitalpenari, gero eta globalizatuagoa den mundu batean.

Lan honetan, bestalde, argitalpenaren zuzendariak (Herve Le Bihan eta Aurelia Arcotxa) eta parte hartu duten artikulugileak —denak beren arloetako espezialista gorenak— gure kultura eta hizkuntzak ohikoa ez den modu baten parez pare jarri dituzte. (....)

Obrak mintzo! Lanek berez hitz egiten dute. Orain, irakurle, zure esku dago haiek epaitzea.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

A limine

L'Académie de la langue basque – Euskaltzaindia a tenu à développer ces dernières années le caractère international de sa production ainsi que de ses activités. Il est évident que l'on ne peut atteindre un tel objectif sans la mise en place d'une collaboration avec d'autres institutions. Le présent ouvrage est à mettre en relation avec les manifestations organisées dans le cadre du centenaire d'Euskaltzaindia (1918-1919/2018-2019) où son implication en faveur de la langue basque, ainsi qu'en faveur d'autres langues proches, fut évidente.

Assurément, la collaboration avec l'Université Rennes 2 représente un tournant au sein des publications d'Euskaltzaindia. La réflexion menée à travers ces lignes sur les littératures et les traductions de diverses époques en basque, breton, occitan, corse, catalan, créole guyanais, entre autres, agit en effet comme un remarquable pont entre des langues et des cultures qui, comme c'est le cas ici, ne bénéficient pas toujours de la reconnaissance, de la présence et du retentissement social qui devraient être les leurs. Souvent, ces langues occupent des espaces transversaux entre deux ou plusieurs États, ce qui confère au présent ouvrage encore davantage d'originalité, dans un monde de plus en plus globalisé.

Dans le cas qui nous occupe en revanche, les directeurs de cette publication (Hervé Le Bihan et Aurelia Arcocha) et les divers spécialistes qui ont collaboré à l'ouvrage ont instauré un dialogue singulier entre nos cultures et nos langues. (.....)

Obrak mintzo! Les œuvres parlent d'elles-mêmes ! Maintenant c'est à vous, lecteur, de juger.

Andres Urrutia
Président de l'Académie de la langue basque - Euskaltzaindia

HIZLARIAK - LES INTERVENANTS



Herve LE BIHAN

Herve Le Bihan unibertsitateko irakaslea da, eta bretoi eta zelta departamendua zuzentzen du Rennes 2 Unibertsitatean. Ikerketa eremuan, bretainiar hizkuntzaren historia eta ahozko eta idatzizko zirkulartasuna jorratzen ditu, zehazkiago erdi-bretoieraren garaiari buruz (XII. eta XVII. mendeak). Ikasketa Zeltikoen Argitalpen Batzordeko (CNRS) kide da, Hor Yezh aldizkaria zuzentzen du eta TIR argitaletxeen buru da. Bere lan berriena Arthur erregearen eta Guynglaff erregearen arteko elkarriketaren argitaratzea izan zen (2013). Devri proiektua zuzentzen du, bretoieraren hiztegi historiko eta etimologikoa (www.devri.bzh).

Herve Le Bihan est professeur d'université, et il dirige le département de breton et celtique à l'Université Rennes 2. Son domaine de recherche aborde l'histoire de la langue bretonne et la circularité oral-écrit, plus particulièrement sur la période du moyen-breton (XIIe-XVIIe siècles). Il est membre du comité éditorial des Études celtiques (CNRS), il dirige la revue *Hor Yezh* et préside les éditions TIR. Son ouvrage d'importance le plus récent est l'édition du texte moyen-breton, le Dialogue entre le roi Arthur et Guynglaff (2013). Il dirige le projet Devri, dictionnaire historique et étymologique du breton (www.devri.bzh).



Aurelia ARKOTXA

Aurelia Arkotxa literatura irakasle emeritua da IKER-UMR 5478 laborategian. Olga Anokhinak zuzentzen duen Eleaniztasuna, itzulpena, sorkuntza (ITEM, CNRS/ENS, Paris) taldeko kidea da, 2012an sortu zenetik. EHUKo Monumenta Linguae Vasconum ikerketa taldeko kide da ere, kanpoko partaide gisa. Liburu inprimatuaren historiaz, euskal idazleen (XIX-XXIe) itzulpengintzaz eta auto-itzulpengintzaz eta ideien historiaz (antifrankismoa eta poesia euskaraz; Jon Mirande poetaren neonazismoa) hainbat lan argitaratu ditu. Idazle ere bada Arkotxa.

Aurelia Arcocha est professeure de littérature émérite de l'Université Michel de Montaigne, rattachée au Laboratoire IKER-UMR 5478. Elle est membre de l'Équipe Multilinguisme, traduction, création (ITEM, CNRS/ENS, Paris) dirigé par Olga Anokhina depuis sa création en 2012. Elle collabore également, en tant que membre extérieur, avec le groupe de recherche de la UPV/EHU Monumenta Linguae Vasconum. Elle a publié de nombreux travaux notamment sur l'histoire du livre imprimé, la traduction et l'autotraduction chez les auteurs d'expression basque (XIXe-XXIe) ainsi que l'histoire des idées (antifranquisme et poésie en basque ; néonazisme chez le poète Jon Mirande). Elle est également auteure.

Aurelia ARKOTXA eta Herve LE BIHAN lan honen abiarazleak dira eta argitalpenaren proiektua elkarlanean eraman dute, hasi eta buka. "Territoires, langues, littératures et cultures: Confrontations, lectures, translations" ("Lurraldeak, hizkuntzak, literaturak eta kulturak: konfrontazioak, irakurketak, translazioak") lehen aldiz Rennesekeo Unibertsitatean aurkeztu ondoren, bistakoa iruditu zaie aldi huntan, euskal irakurle eta irakurleen aurrean errepikatzea. Apirilaren 27an, Baionan, ko-autore anitzez inguraturik, elkarrekin oroituko dute zergatik eta nola erabaki zuten, hain urrun eta ezberdinak diren eta hainbat puntu komun dituzten autore eta testuak libur batean biltzea.

Aurelia ARKOTXA et Herve LE BIHAN sont à l'origine de cet ouvrage; ils ont également co-dirigés le projet de publication du début à la fin. Après une première présentation de "Territoires, langues, littératures et cultures: Confrontations, lectures, translations" dès sa sortie de l'imprimerie à l'Université de Rennes data lekua gehitu. il est paru comme une évidence de répéter l'expérience devant les lectrices et lecteurs basques. Le 27 avril à Bayonne, entourés d'un bon nombre de co-auteurs, ils rappelleront pourquoi et comment leur est venue l'idée de rassembler des auteurs et des textes si éloignés et différents et avec autant de points communs



Miren IBARLUZEA

Euskara eta Euskal Kulturako irakasle jardun zuen 2011ko irailetik 2015eko irailera bitartean Michel de Montaigne-Bordeaux III eta Sorbonne Nouvelle-Paris III unibertsitateetan. Ondoren, UPV/EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultatean aritu zen, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, 2021era bitartean eta, orain, UPV/EHUKo Gasteizko Letren Fakultateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean ari da. Sail berean, «Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan» izenburuko tesiarekin eskuratu zuen doktoretza 2017an, bai eta doktoregoko sari berezia eta 2018ko Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena VI. saria ere. Euskal itzulpengintzaren historia, kritika eta soziologia zein hizkuntzaren eta literaturaren didaktikaren alorreko lanetan aritu da batez ere.

Professeure de langue et de culture basques de septembre 2011 à septembre 2015 aux Universités Michel de Montaigne-Bordeaux III et Sorbonne Nouvelle-Paris III. Miren Ibarluzea a ensuite travaillé à la Faculté de Bilbao de l'UPV/EHU, au Département d'Enseignement de la Langue et de la Littérature, jusqu'en 2021 et travaille actuellement au Département de Linguistique et d'Études Basques de la Faculté des Lettres de Vitoria-Gasteiz. Elle y a obtenu son doctorat en 2017 avec la thèse intitulée « Représentations de la traduction dans la littérature contemporaine basque : autonomisation du domaine, historiographies littéraires et traducteurs de fiction », ainsi que le prix spécial de doctorat et le VIe prix Koldo Mitxelena de thèses en langue basque en 2018. Elle a travaillé principalement dans le domaine de l'histoire de la critique et de la sociologie de la traduction basque, ainsi qu'en didactique de la langue et de la littérature.

Ramon Saizarbitoria Martutene eleberrian darabilen poetika eleaniztuna eta idazle-itzultzaileen agerpen fikzionala ardatz harturik, idazleak eleaniztasuna eta itzulpena testuratzeko darabiltzan moduak eta eleberriko pertsonaiek eleaniztasunaren eta itzulpenaren inguruan egiten dituzten hausnarketak izango dira hizpide.

Sur la base de la poésie multilingue de Ramon Saizarbitoria dans le roman Martutene et de l'apparition fictive des écrivains-traducteurs, j'aborderai les façons dont l'auteur textualise le multilinguisme et la traduction, ainsi que certaines réflexions des personnages du roman sur le multilinguisme et la traduction.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



François PIC

Liburuzaina 1976. urtetik, Montpellierko Unibertsitateko Ikasketa Erromanikoen DEA (1992), Wien Unibertsitateko Erromanistikan doktorea (2011), François Pic jaunak (Talence, 1954), hurrenez hurren, Okzitaniako Dokumentazio Nazioarteko Zentroa (Béziers, 1976-94) zuzendu zuen, eta ondotik Okzitaniako Institutua sortu zuen (Paue, 1995-2000). Bibliografoa, 1976tik aitzina, artikulua, ohar eta ekarpen anitzen bidez, Okzitaniako Idazkiaren Bibliografia XV. mendetik XXI. mendera osatuz doa. Kurtso arduraduna Tolosa 2-Jean-Jaurès Unibertsitatean (2005-2020), ekitaldi zientifiko, solasaldi eta erakusketen antolatzailea izan zen, eta obra kolektiboen maisu, editore, bildumen zuzendari-orde. Luzaz Okzitaniar literaturaren ikerreketa zentroko (CELO) eta Okzitandarraren Nazioarteko ikerketa taldeko (SFAIEO) idazkari ere izan zen. Vienako Unibertsitateko (Austria) Izkribu Okzitaniar Moderno eta Garaikidearen bibliografoa.

Bibliothécaire dès 1976, DEA d'études romanes de l'Université de Montpellier (1992), docteur en romanistique de l'Universität Wien (2011), François Pic (Talence, 1954) a successivement dirigé le Centre international de documentation occitane (Béziers, 1976-94), préfiguré puis créé l'Institut occitan (Pau, 1995-2000). Bibliographe, il établit progressivement depuis 1976, par de très nombreux articles, notices et contributions diverses, la Bibliographie de l'Écrit (en) occitan du XV e au XXIe siècle. Chargé de cours à l'Université de Toulouse 2-Jean-Jaurès (2005-2020), il fut en outre organisateur d'événements scientifiques, colloques et expositions, maître d'œuvre d'ouvrages collectifs, éditeur, co-directeur de collections, longtemps secrétaire du Centre d'étude la littérature occitane (CELO) et de la Section française de l'Association internationale d'études occitanes (SFAIEO)

1972az geroztik, Okzitaniako XV. mendetik XVIII. mendera arte inprimatutako Idazkiaren inbentario sistematikoa egin dut. Europa osoko liburutegi publiko eta pribatueta egindako bilaketen bidez, tokiko hizkuntzak babesten dituzten liburu saltzaile, bibliofilo, liburuzain, bibliografo eta historialari andana ezagutzeko parada izan dut eta XVI. mendetik gaur egun arteko "Oc literatura" osatzen lagundu dutenak.

Établissant depuis 1972 l'inventaire systématique de l'Écrit imprimé (en) occitan du XVe au XVIIIe siècle, j'ai, par des dépouillements en bibliothèques publiques & privées à travers toute l'Europe, fréquenté une cohorte de libraires, bibliophiles, bibliothécaires, bibliographes et historiens, amateurs de « livres en patois » du 16ème siècle à nos jours qui ont progressivement contribué à « constituer » l'objet « Littérature d'Oc ».



Itxaro BORDA

Baionan (Lapurdi) jaio zen 1959ko martxoaren 29an.

Historian lizentziaduna (Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea)

Idazlea.

Maiatz aldizkariaren sortzearen lan taldean parte hartu zuen 1981ean.

1984an, *Bizitza nola badoan* bere lehen olerki bilduma argitaratu zuen eta 2002an Euskadi 2002 literatura saria erdietsi zuen *100 % basque* eleberriagatik. Eleberri, olerki, saiakera eta kantu andana bat idatzi du Itxaro Bordak, euskal emazteak bere gizarteaz duen begirada islatuz haren lanetan.

Ogibidez postaria izan da luzaz, Parisen lehenik, Zuberoan eta Baionan ondoren. Erretretan sartu berria, Baionan bizi da gaur egun.

Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 2021ean eta euskaltzain oso 2022ko azaroan.

Écrivaine, née à Bayonne (province du Labourd) le 29 mars 1959.

Elle obtient une licence d'histoire (Université de Pau et des Pays de l'Adour).

En 1981 elle participe à la création de la revue littéraire *Maiatz*.

En 1984, elle publie son premier recueil de poèmes *Bizitza nola badoan* et en 2002, elle obtient le prix littéraire Euskadi pour son roman *100 % basque*. Itxaro Borda a écrit de nombreux romans, poèmes, essais et chansons qui reflètent le regard d'une femme basque sur sa société.

Elle a longtemps travaillé comme employée de La Poste, d'abord à Paris, puis en Soule et à Bayonne.

A la retraite depuis peu, elle vit actuellement à Bayonne. Devenue académicienne correspondante en novembre 2021, elle a été nommée académicienne titulaire à l'Académie de la langue basque - Euskaltzaindia le 26 novembre 2022.

Itzultzea arrisku handiko kirol bat da!

Itzulpena, literatur sorkuntzaren bihotza da, hala uste dut bederen.

Frantsesetik, gaztelertatik edo ingelesetik bistan dena, bai eta euskararen mailako beste mintzairetatik ere, okzitanotik edo katalanetik adibidez. 2008 eta 2011 artean, Maria Mercé Marçalen poemak euskaratu nituenean, orain baino gutxiago ezagutzen nuen katalana. Prozesu luze bat izan zen, bere buru-hauste, ezjakin eta ulertezinekin, hitzez hitz, baina egun oroz itzulpen aterabide bat aurkitzeko plazer horrekin!

La traduction, ce sport à risque !La traduction est le cœur de la création littéraire, c'est mon opinion du moins.

Du français, de l'espagnol ou de l'anglais bien sûr, mais aussi traduire d'autres langues comme le basque, l'occitan ou le catalan. Entre 2008 et 2011, lorsque j'ai traduit en basque les poèmes de Maria Mercé Marçal, je connaissais moins le catalan qu'aujourd'hui. Ce fut un long processus, avec ses casses-têtes, ces lacunes et ces incompréhensions, mot à mot, mais avec ce plaisir de trouver chaque jour une issue à la traduction !

INFORMAZIO OSAGARRIA

LITERATURA SOLASALDIA euskal museoan iraganen da, 18:00etan hasita, 20:00ak aldera bukatzeko, zintzur bustitze baten inguruan.

Aldibereko itzulpena segurtatua izanen da. **Elkarriketak lotzeko : jiroz@euskaltzaindia.eus - 05 59 25 30 56**

INFOS +

La soirée littéraire se déroulera au Musée Basque, à partir de 18h00 pour finir vers 20h00 autour d'un verre de l'amitié.

Un service de traduction simultanée sera proposé au public.

PARTAIDEAK - PARTENAIRES :

Euskaltzaindiak antolatzen duen literatura solasaldia, Rennes 2 Unibertsitatea, Baionako Herriko Etxea, eta Euskal Museoarekin partaidetzan.

Soirée organisée par Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, en partenariat avec l'Université de Rennes 2, la Ville de Bayonne et le Musée Basque de Bayonne. **Pour toute demande d'interview : jiroz@euskaltzaindia.eus - 05 59 25 30 56**

